

Abereak preziatuak zirenekoa

Antzina, bizilagunen lanaren arabera egituratzen ziren etxeak. Hala bada, jarduera nagusia abeltzaintza zen etxeetan, sarri askotan, ukuiluak beheko solairua osorik edo ia osorik hartzen zuen. Nekazaritza-etxe batzuetan, askak sukaldearen edota pasabidearen eta ukuiluaren arteko horman egoten ziren, eta bertatik ematen zitzaien jaten ganaduei. Animalion gertutasuna aprobetxatuz, familiak etxe-abereek ekoiztako beroa baliatzen zuen, etxebizitza berotzeko.

Animaliei ematen zitzaien tratua errespetuzkoa izaten zen; oro har, ondo esaten zitzaien, modu maitekorrean eta keinu adeitsuekin. Are gehiago, beraien osasunaz asko arduratzen ziren; eta animaliak gaixo edo triste egonez gero, egonezina nagusitzen zen etxekoen artean ere. Azken batean, abereak etxekotzat hartzen ziren.

Orduko baserriko bizimoduan ganaduak zuen garrantziaren adibide dugu Jean Baptiste Elizanburu poeta lapurtarrak 1862. urtean idatzitako «Nere etxea» edo «Laboraria»¹ poemaren ahapaldi honetan esaten dena:

*Landako hirur behiak,
esnez hanpatu ditiak,
ahatze eta ergiak;
bi idi handi kopeta zuri,
bizkar beltz, adar handiak,
zikiro, bildots guriak,
ahuntzak eta ardiak,
nereak dire guziak!*

Etxeko animaliei, eta batik batazienda nagusiari, erreferentzia egiteko euskal hitzik hedatuena abereak izan da. Latinezko habere hitzetik dator, eta ‘ogasuna’ edo ‘ondasuna’ esanahi du. Eta horretatik eratorri dira honako hauek ere: aberekia, aberetzarra, aberekeria, abeltzaina, abelduna...

Ez da harritzekoa aberats hitzaren erroa abere izatea; izan ere, sasoi batean,azienda handia zuenari esaten zitzaion aberatsa. Eta hain justu, gaztelaniazko hacienda hitzetik eratorri da batez ere behiak eta ardiak izendatzeko euskarazkoazienda hitza. Hortik sortu diraazienda larria etaazienda xehea terminoak, abere nagusia eta abere txikia terminoen parekoak. Eta hitz horiek kolore bat erantsita ere joan daitezke: abelgorria etaazienda gorria ‘behi-azienda’; abere beltza etaazienda beltza ‘txerriazienda’; etaazienda zuria ‘ardi-azienda’.

Azkenik, hainbat toponimo eta abizenen oinarrian ere abere eta aberats hitzak daude: Abeletxe, Aberasturi, Aberasturizar, Aberastain, Aberastegi...

Ziortza Artabe Etxebarria – Herri Ondarea Arloa – Labayru Fundazioa

¹ Elizanbururen poema «Ikusten duzu goizean» izenez da ezaguna askorentzat